HERRIZAINGO SAILA

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren irekitako zehapen-espediente hauetan Herritarren Segurtasunerako zuzendariak emandako ebazpenak jakinarazteko dena. 18486

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

IRAGARKIA, 1402/05-2 administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren administrazio-espedientea bidali dela jakinarazteko eta hirugarren interesatuak epatzeko dena. 18489

PORTUGALETEKO UDALA

IRAGARKIA, 2005eko irailaren 15ekoa, jakinarazteko Udalak Ballontiko barnebiderako sarbideen sistema nagusiaren jabegokenketarako proiektua (1. aldia) onartu duela. 18489

IRAGARKIA, 2005eko irailaren 15ekoa, jakinarazteko Udalak SLAA1 jarduketa isolatua burutzeko jabegokenketarako proiektua onartu duela. 18491

IRAGARKIA, 2005eko irailaren 15ekoa, jakinarazteko Udalak SLAA2 jarduketa isolatua burutzeko jabegokenketarako proiektua onartu duela. 18492

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ANUNCIO por el que se notifican las resoluciones del Director de Seguridad Ciudadana de los expedientes que abajo se indican, incoados con relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 18486

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ANUNCIO de remisión del expediente administrativo del recurso contencioso-administrativo n.º 1402/05-2 y emplazamiento de terceros interesados. 18489

AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE

ANUNCIO de 15 de septiembre de 2005, por el que se comunica la aprobación del proyecto de expropiación del sistema general de accesos al corredor del Ballonti (1.ª fase). 18489

ANUNCIO de 15 de septiembre de 2005, por el que se comunica la aprobación del proyecto de expropiación para la ejecución de la actuación aislada SLAA1. 18491

ANUNCIO de 15 de septiembre de 2005, por el que se comunica la aprobación del proyecto de expropiación para la ejecución de la actuación aislada SLAA2. 18492

Xedapen Orokorrak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5120

AGINDUA, 2005eko irailaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2000ko apirilaren 4ko Agindua aldatzen duena. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako titulu akademikoak eta lanbide-tituluak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoari dagozkionak, emateko modua finkatu zuen agindu horrek.

2002ko azaroaren 29ko Aginduak (2003ko urtarrilaren 9ko EHAA) baimena eman zuen Donostiako (Gipuzkoa) Musikene goi mailako musikako baimendutako ikastegia ireki eta jardunean jartzeko.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5120

ORDEN de 14 de septiembre de 2005, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de modificación de la Orden de 4 de abril de 2000, por la que se establece el procedimiento de emisión de títulos académicos y profesionales de la enseñanza no universitaria, correspondientes a la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación del Sistema Educativo, para la inclusión de las enseñanzas del grado superior de música.

Por Orden de 29 de noviembre de 2002 (BOPV de 9 de enero de 2003) se autoriza la apertura y funcionamiento del Centro Autorizado de Música de Grado Superior «Musikene» en Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak izapidetu zuen «Fundación privada para el Centro Superior de Música del País Vasco» delakoak aurkeztu zuen eskariri zegokion espedientea.

2000ko apirilaren 4ko Aginduak bere 10. artikuluan ezarri du unibertsitatez kanpoko tituluak izapidetzeko prozedura, eta zehazki, derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzari eta ikastetxe pribatuei dagokiena.

Agindu horretan adierazten denez, titulu bat eskatzeko prozedura ikaslearen eskariz hasiko da. Ikasketak non amaitu dituen, ikastetxe horri egingo dio eskaria, ikastetxe publikoa bada; ikastetxe pribatua bada, berriz, ikastetxe hori atxikita dagoen ikastetxe publikoari. Ikastetxe publikoko zuzendariak eta lurralde ordezkariak ere izenpetuko dituzte eskari-dokumentuak, eta dagozkien erakundeetan gordeko dituzte kopia bana.

Kontuan hartuta Musikenek ematen dituen irakaskuntzak goi-mailakoak direla, eta ematen dituen tituluak unibertsitate-lizentzien parekoak direla, eta EAEn ez dagoela ikasketa-maila horretako unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikorik, arazoa dago atxikipenerako. Egoera ikusita, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eta Ikastetxeen Zuzendaritzak hauxe erabaki dute: Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari atxikitzea Musikene. Beraz, titulu akademikoak izapidetzea Pedagogia Berrikuntzako Lurralde Burutzari egokituko zaio; hain zuzen ere, titulu akademikoen eta lanbide-tituluen Atalari.

Horiek horrela, eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak eta Ikastetxeen zuzendariak proposatuta, honako hau

XEDATU DUT:

Ondoko xedapen gehigarria sartzea:

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Bigarrena.– Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Pedagogia Berrikuntzako Lurralde Burutzari eskumena ematen zaio ondoko goi mailako musika-tituluak izapidetzeko: Musikene goi mailako musikako baimendutako ikastegiak eskatutakoak. Ikastegi hori, beraz, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari atxikiko zaio, zuzenean, ondorio horietarako.

Era berean, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza arduratuko da Musikene goi mailako musikako baimendutako ikastegiko ikasleei dagozkien ebaluazio-dokumentuak zaintzeaz.

AZKEN XEDAPENA

EHAAn argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko irailaren 14a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

La Delegación Territorial de Educación de Gipuzkoa es el organismo que tramita el expediente de solicitud presentado por la «Fundación privada para el Centro superior de Música del País Vasco».

La Orden de 4 de abril de 2000 establece, en su artículo 10, el procedimiento de tramitación de los títulos no universitarios y, en concreto, en lo que afecta a la enseñanza postobligatoria y a los centros privados.

Se establece que la solicitud de un título se inicia a solicitud del alumno al centro en que ha finalizado sus estudios, si es público, o al centro público al que está adscrito el centro privado al que pertenece, custodiándose los documentos de solicitud firmados por el director del centro público y por el delegado territorial en las respectivas instituciones, una copia en cada una.

Dado que las enseñanzas que se imparten en «Musikene» son de Grado Superior, y que los títulos correspondientes son equivalentes a licenciatura universitaria, no existe centro educativo público no universitario alguno de este nivel de estudios en la CAPV, siendo por consiguiente problemática su adscripción. Ante esta situación las Direcciones de Innovación Educativa y de Centros Escolares han decidido adscribir «Musikene» a la Delegación Territorial de Educación de Gipuzkoa, correspondiendo la tramitación de títulos académicos a la Jefatura Territorial de Renovación Pedagógica, Sección de títulos académicos y profesionales.

Por ello, y a propuesta de los Directores de Innovación Educativa y de Centros Educativos,

DISPONGO:

Añadir la siguiente Disposición Adicional:

DISPOSICIONES ADICIONALES

Segunda.– Se autoriza a la Jefatura Territorial de Renovación Pedagógica de la Delegación Territorial de Gipuzkoa, a tramitar las solicitudes de títulos de grado superior de música del Centro Autorizado de Música de Grado Superior «Musikene», quedando este centro adscrito directamente, a estos efectos, a la Delegación Territorial de Gipuzkoa.

Será asimismo responsabilidad de la Delegación Territorial de Gipuzkoa la custodia de los documentos de evaluación del alumnado correspondientes al Centro Autorizado de Música de Grado Superior «Musikene».

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de septiembre de 2005.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.